

## egunekoa

Teresa Toda

(Kazetaria)

# 'Aberzale' izateko bidean

**A**berzale hitza *El País*-en lehen aldiz irakurri nuenean, akats bat zela pentsatu nuen. Hala ere, hurrengo egunetan maiz azaltzen zen hitza hainbat artikulu eta titularretan. *El País*-en akats berdina hainbeste aldiz errepikatzea ohikoa ez denez, ondorioztatu behar da hitza nahita erabiltzen duela. Eta metafora politiko oso egokia iruditzen zait.

Aukera egiterakoan, *El País*-ek aberzale, berez euskaldun hitz enblematico dena, gaztelaniara moldatu du. Hizki bat kentzearekin, hizkuntza politiko zuzenera ahokatu du, gaztelaniari ebaikitzea hainbeste kostatzen zaion soinu euskaldun bat ezabatzen. Eta horrelako abertzaletasuna nahiko lukete bai Espainiako Estatuak, bai alderdi konstituzionalista guztiak, bai haiekin bat datozen hedabideek: euskaldunak haien gustura moldaturik, Espainian eroso, beren *berezitasun* apurrarekin, baina, oro har, etxekotuta eta abertzaletasunetik urruti.

Nolabait, azken asteotan Euskal Herriak duen egoera dramatiko horretan datza. Joan den larunbatean agerian geratu zen Ertzaintza *abertzale* zintzo bihurtzen ari dela Madrilentzat, leporatzen zion *epeltasuna* gainditzen. Ertzaintza ez da izango diktadura baten polizia, baina Bilbon erakutsitako jarrera diktadura baten Poliziarena da. Ur tanketak jendetza baketsuaren aurka, pilotak, kea... Bilbon zegoen hainbat eta hainbat gaztek ez zuten inoiz horrelakorik ikusi; helduagook bai, zuzenean Francoren garaian, Pinocheten Txilen, Videlaren Argentinan, Errumanian Ceauscuren aurka egindako manifestazioetan... Eta geurean, baina Espainiako Polizia eta Guardia Zibilarren eskutik. Egia esatearren, Polizia indarren artean ezberdintasun gutxi dago munduan zehar, baina Euskal Herriari, Ertzaintza menpean daukan Go-

### ERTZAINZAREN JOKABIDEA

#### Joan den larunbatean agerian geratu zen Ertzaintza 'abertzale' zintzo bihurtzen ari dela Madrilentzat

bernuko kide batzuen arabera, beste jarrera bat dago, herritar guztien esku-bide zibil eta politikoak zaintzeko.

Hori ez da egia. Ertzaintzaren agintari politikoak ez ziren gai izan joan den larunbatean beren hitzari eusteko. Ezin da esan aste osoan manifestazioa guztiz zilegia dela eta, ondoren, horren aurkako basakeria agindu, onartu eta betiko argudio makalekin justifikatu, horien artean Ertzaintzak egindakoaren errua Batasunari leporatzen. Ezin da behin eta berriro desobediencia zibilaren balioa aldarrikatu beste ekin-tzen aurrean eta, hamarnaka mila pertsonen bide hau hartzen dutenean, makilatu. Zorionez, jende abertzalearen duintasuna eta buru hotza Ertzaintzaren bortizkeria baino askoz indartsuagoa izan zen. Zorixarrez, Lakua eta harekin batera bere burua abertzaletzat jotzen duten alderdien zuzendaritzak goitik behera *abertzale* izateko behin betiko hautua egiteko zorian daudela ematen du. PSE hasi da Juan Jose Ibarretxeren Exekutibo txalotzen. Kezkagarria, edozein abertzalerentzat.

Egoera hain latza denez, ezker abertzaleak eta abertzale sentitzen den orok inteligentzia politiko fin-finarekin jokatu beharko luke. Kaleitsu batean sartuta dirudite euskal eragile politikoek eta sindikalek; PP, PSOE eta Espainiako Estatuaren botereek irteera blokeatzen dute bitartean. Espainolisten tresna nagusietako bat, euskal subiranotasuna oztotatzeko, PNV eta EA Estatuak eta Estatuarekin betirako lerro-

katzea izango litzateke. Nahi duen garaipena lortzeko, beste hainbeste artean, Estatu xantaia eta mehatxuek baliatzen da, EAk Estatuaren bidez lortu duena galtzear dagoen beldurra hedatzen. Hor dago EAJ eta EAren erroka: beldur horren aurrean ez markutzea, duintasunez aurre egitea. Mehatxuek bere erakusten dute Estatuak zer-nolako dependentzia duen Madriletik; finean, Espainiako Estatuak baita eskuduntzak *ematen* edo *kentzen* dituen. Beraz, Euskal Herria bizi dadin beste zerbaitek behar da. Subiranotasuna. Baina ez hitzetan, ekintzetan baizik. Egoerak abertzaleak behar ditu, ez *abertzales*.

Hori izan daiteke etorri zaizkigun ordu beltzak saihesteko bidea. Hori eta gauzak mugitzeko benetako borondatea. Inor ez da errugabea bizi dugun egoera iritsi izanaz, baina inor ez da errudun bakarria ere. Batak beste irainak eta kontuak eskatzen ibiltzeak ez du konponketa ekarriko, kontrako baizik. Ordua da arduraz jokatzeko, eta barneratzeko Euskal Herria benetan maite duten guztiak interes berekoiak alboratu behar dituztela, Euskal Herriaren onurarako. Oker egindakoa onartzea eta zuzentzea duintasuna lantzea da. Bestela, inkomunikazio egoerak ito egingo gaitu.

Malko ugari isuri da azken asteburuan begi abertzaleetatik. Ez bakarrik Ertzaintzaren tramankuluek eragindakoak, ezta gutxiago ere; gazienak, tristenak bihotzetatik sortu dira, euskaldunon arteko iskanbilak eta horren ondoriozko konstituzionalisten poza ikusteagatik. Salbuespen egoeran bizi gara, horrek tamainako erantzun politikoa eskatzen du. Haatik, tamalez, azken gertaeraren ondoren, antza denez malkoek begirada lurrinduko digute oraindik. Eta begi zorrotzak behar ditugu.

## zutabea

Bixente Serrano Izko



### Disolbatzailea

**S**ekula santan ez nukeen pentsatuko hainbertze kide izanen zuenik ETak. Izu-laborritan susma dezaket Garzon, eta ez da gutxiagorako. Hortaz, agian, kide horiek denak atxilotu eta auzipetu ordez, garai bateko *La Codorniz*-ek egiten zuen bezain zuhur egiten du Garzonek bere lana: salaketa publikoa eta *paper espetxeko* itxialdia. Bitartean, noski, aginduz eta defentsa-aukerarik gabe kentzen dizkie eskubide politikoak oro. Edo ETaren aldeko proselitista izanen al dugu?

Arrazoi du *Deia*-ko editorialgileak: «Irudika dezakegun eszenatokirik txarrean bizitzen ari da euskal gizartea». Ez nuke egon nahi izanen Ibarretxe eta haren gobernu-kideen larruaren barnean. Nahiago dut mila bider larunbatean egon nintzen lekuan egon: Bilbon, manifestari bat gehiago, ertzaintzatik fisikoki hurbil-hurbil, gertatu ziren hainbat gauzaren lekuko. Ulertzen dut Balzak bere gezur hutsa sinetsi nahi izatea, dimititu beharko luke bertzela. Balza ez zen egon agertoki hartan, Balzak ez zituen ikusi bere ertzain asko berak nahi ez duen polizia-eredu baten isla, jendetzaren kontra jotzeko irrikan, irainka beraien entzuterrean geundenon aurka. Balzak ez zuen ezer ikusi, eta bere mutil eta neska moztordunei sinetsi behar die: hobe egingen luke, ordea, gehiago kontrolatuko balitu. Suposatzeak da moztordun horietakoren batek eskatu ziola baimena Balzari tanketa hartatik disolbatzailea jaurtitzeko, manifestariak lurrin bihurtuko zirelakoan. Disolbatu egin zena, aldiz, manifestari anitzek oraindik zuten esperantza apurra, Jaurlaritzaren zentzutasunaren itxaropentxo, alegia, izan zen.

Arrazoi du EAJk bere burua bi estratagiaren artzietako bi ahoen artean ikusten duenean. Nola edo hala hortaz askatu nahi, bale. Baina ulertu beharko luke, batetik, aho bakar bat leuntzera jotzen badu, Estatuaren gorpuak irau, luze irau dezakeela momia eginda, inolaz ere ez, ordea, berpiztu; eta, bertetik, herri honetan badagoela jende arraroa, agian alderdi jakin bati botoa inoiz ez eman arren horren eskubideen alde setati ateratzeko prest, moztordunen mehatxuak oro gorabehera. Ulertu beharko luke herritar horiengan datzala benetako zentzutasuna, goiz ala berandu ETaren aldeko Garzonen proselitismoaz iragan kontu barregarri gisa eta *La Codorniz*-eko salaketez bezain umore beltzean oroitzeak gai egin gaitzakeena.

## seiko urrea

Julen Zabalo



### Francorekin ere legea betetzen zen

**G**ogoan dudan lehenengo manifestazioa frankismoan gertatu zen. Jendeak kontsigna bakarra oihukatzen zuen, gaztelaniaz: *askatasuna, askatasuna*, eta hitz harekin mila aldarrikapen laburbiltzen zen, horietako bat, esan gabe doa, manifestatzeko askatasunarena. Madrilko ordezkariak ziren orduko gobernadore zibilek ez zuten ukatzen eskubide hura, baina gai hartaz hainbat lege zeudela zioten, eta euren betebeharrak legea bete-

tzea zen, denok dakizkigun ondorio lazgarriekin.

Lehen larunbatean Bilbon egin zen manifestazioan eskema guzti-guztiak errepikatu ziren: oinarrizko eskubide baten faltaz (elkartze askatasunarena), jendeak kalera irten zuen askatasuna aldarrikatzeko, baina oraingoan gobernadore zibilen papera hartu dutenek ukatu egin zuten oinarrizko eskubide hura, euren betebeharrak Madriletik zetorren legea betetzea zela

esanez. Eta ondorioa denok ikusi ahal izan dugu.

Gauza asko aldatu da egoera bien artean, bai, baina egoera bietan ikusten dugu oinarrizko eskubide batzuk ez direla bermatzen, eta eskubideak eskubide dira, ez dago moterik, gainera *legeren* bat ei dagoelako. Oinarrizko eskubideen gainera ez dago ezer.

Lotsagarria iruditu zait, hortaz, Gasteizko gobernuaren jarrera, *legea betetzera* mugatzen dela esatean. Alde batetik, bere burua beste baten funtzionariotzat onartzea delako; eta, bestetik, pentsatzen delako, gainera, jarrera propiorik ezin dela eduki. Hori, oster, ez da zuzena, ezen arau onartua da mundu osoan inork ezin duela behartu, bortxaz ez bada, ilegítimoak diren aginduak betetzera. Muturreko adibide bat

ipinita, leialtasunik handiena eskatzen zaion armada bateko soldadu batek ere uko egin behar dio agindu bat betetzeari, nabaria bada oinarrizko eskubide bat urratzen dela.

Espainia legitimaturik dago nazioarteko komunitatean, baina horrek ez du esan nahi bere botere organoetatik irteten duen guztiak legitimo izan behar duenik. Gasteizko gobernuak, berriz, ez du bere kabuz pentsatu nahi. Nahiago du errua beste guztiari leporatzea eta bere burua *legea betetzera* mugatzea. Baina agindu ilegítimo bat betetzea norbera ilegimitate horretan sartzea da. Jaurlaritza eta hura osatzen duten hiru alderdiak ere ilegimitate horren konplize dira, beraz, eta oinarrizko eskubide bat urratu izatearen erantzukizuna eurei ere dagokie.